

Bibliopiszina zerbitzua hilaren 31ra bitartean luzatuko da Urretxuko udal igerilekuan

Aurreko urteetako arrakastari helduta, aurtengoan ere martxan da Urretxuko udal igeriluak bibliopiszina izeneko zerbi-tzua. Hala, eta nolabait adierazteko, herriko liburutegia udal igerilekura aldatu dela esango genuke. Honenbestez, bertan, igerilekuko karneta aurkeztuz (karneta eduki ezean, Nortasun Agiria erakutsita ere nahikoa izango da), liburu eta aldizkariak hartu eta hantxe irakurtzeko aukera dago.

Astelehenetik larunbatera luzatzen da zerbitzu hau, arratsaldeko 15:30etik 20:20era bitartean, hain zuzen ere.

2001. urtean antolatu zuten lehenengo aldiz bibliopiszina izeneko ekimen hau Pagoetako udal igerilekuetan, eta egitasmoak hasieratik herritarren artean oso harrera ona izan duela esan daiteke. Hori dela-eta, urtez urte errepikatu izan da. 2006an, gainera, zerbitzua hobetu egin zen bibliotekarako txoko berezi bat, stand bat erosi baitzuen Udalak. Aurtengo udako zerbitzua hilaren 31ra arte luzatuko da.